

ZARAUZKO ESKOLEN ARTEKO FOROA

Bileraren akta

EGUNA, ORDUA ETA LEKUA:

- 2017ko Apirilak 5, asteazkena, goizeko 9:30tan.
- Aritzbatalde Kiroldegia.

PARTAIDEAK:

Ikastetxeak:

- Salbatore Mitxelena Ikastola, Belen Gonzalez irakasle koordinatzailea eta 6 ikasle ordezkari (LHko 4 eta DBHko 2).
- Antoniano Ikastetxea, Iñaki Erostarbe irakasle koordinatzailea eta 6 ikasle ordezkari (LHko 4 eta DBHko 2).
- Orokieta Herri Eskola, Silvia Martinez irakasle koordinatzailea eta LHko 6 ikasle ordezkari.
- La Salle Ikastetxea, irakasle koordinatzailearen ordezkaria eta 8 ikasle ordezkari (LHko 2 eta DBHko 6).
- Lizardi Institutua, irakasle koordinatzailearen ordezkaria eta 6 ikasle ordezkari (DBHko 4 eta batxilergoko 2).
- Oteitza Lizeoa, Ainhoa Mateos irakasle ordezkaria eta 4 ikasle ordezkari.

Zarauzko udala:

- Nerea Ollokiegi, Agenda 21eko teknikaria.

ARAZI:

- Eneko Salaberria
- Nerea Ibañez

GAI-ZERRENDA:

1. Sarrera:

- Eskolako Agenda 21ean emandako pausuak azaldu.
- Hurrengo urratsak aurkeztu.
- Foroaren lan-dinamikak azaldu, bileraren helburuak zehaztuz.

2. Udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamenen aukeraketa eta banaketa:

- Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lan-dinamika.
- Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lan-dinamika.

3. Eskolako Agenda 21, 2016-2017 ikasturteko ekintza aipagarrienak (gustukoak, ekarpenak...) ikasleen hitzetan.

4. Udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamen eta konpromisoen lanketa:

- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek elkarlanean proposamenak lantzeko ereduak osatu.

BILERAREN BILAKAERA:

Parte-hartzaile guztiei ongi etorria eman ondoren Araziko ordezkariak aurkezpena egin du, bileraren helburuak azalduz. Jarraian, Eskolako Agenda 21 programaren barne 2016-2017 ikasturtean zehar emandako pausua gogoratu dira, eta hurrengo urratsak aurkeztu dira.

Behin bileraren testuingurua azalduta eta helburuak zehaztuta, Lehen Hezkuntzako ikasleek Lehen Hezkuntzatik jasotako proposamen guztien arteko aukeraketa eta banaketa egiteari ekin diote. Era berean, aretoaren beste eremu batean, ikasle helduenek (DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa) Bigarren Hezkuntzatik, Batxilergotik eta Lanbide Heziketatik jasotako proposamen guztien arteko aukeraketa eta banaketa egiteari ekin diote.

Lehen Hezkuntzako ikasleek buruturiko lana:

Lehen Hezkuntzatik 16 ordezkari izan dira bileran: Orokieta Herri Eskolako 6 ikasle, Salbatore Mitxelena Ikastolako 4 ikasle, Antoniano Ikastetxeko 4 ikasle eta La Salle ikastetxeko 2 ikasle. Eskola ezberdinetako ordezkariak talde berean egon dira, eta talde bakoitzean eskola bereko bi kide mantendu dira. Jarraian, taldeen egitura zehazten da:

- LH 2. Zikloko Orokieta HEko 2 ikasle eta Salbatoreko 2 ikasle.
- LH 2. Zikloko Orokieta HEko 2 ikasle eta Antonianoko 2 ikasle.
- LH 3. Zikloko Orokieta HEko 2 ikasle eta La Salleko 2 ikasle.
- LH 3. Zikloko Salbatoreko 2 ikasle eta Antonianoko 2 ikasle.

Talde bakoitzari proposamenak eskuratu zaizkio, gaika antolatuta:

1. Gaia: Bizikletak eta oinezkoak; 4 proposamen.
2. Gaia: Ibilgailu motordunak; 6 proposamen.
3. Gaia: Hondakinak; 3 proposamen.
4. Gaia: Erosketak, 2 proposamen.



Gai bakoitzeko proposamen bat aukeratzea adostu da, norberak bere lehentasunak zehaztu eta gainontzeko taldekideekin eztabaidatu ondoren. Adostasuna lortu ezean, bi proposamenen arteko nahasketa idazteko aukera luzatu da. Hona hemen gai bakoitzaren inguruan aukeratu diren proposamenak:

Gaia	Talde bakoitzaren lehentasunak				EAFan egindako aukeraketa	Ikastetxeen arteko banaketa
	1 taldea	2 taldea	3 taldea	4 taldea		
A. Bizikletak eta oinezkoak	4	2	2	1+2	2	La Salle
B. Ibilgailu motordunak	2+1	4	2	3+2	2	Salbatore
C. Hondakinak	3+2	1	3	2	3	Orokieta
D. Erosketak	2	1	2	1+2	2	Antoniano

Jarraian, ikastetxe bakoitzari egokitutako proposamena/k zehazten dira:

LA SALLE IKASTETXEA

- PROPOSAMENA

Etxe askotan kotxe bat baino gehiago dago eta askotan edozein erosketa edo herri gunera joateko kotxea erabiltzen dugu. Beraz: **bidegorri sarea areagotu, ikastetxe, kiroldegi, hondartza, merkatua.... Denak lotzen dituen bidegorri sarea osatuz.** Konpromisoa: bizikletaz edo oinez mugituko gara herrian zehar.

Jatorriz: Antoniano Ikastetxea / Udalbatzarrean aurkezten du: La Salle Ikastetxea.

SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

- PROPOSAMENA

Zarauztarrek gutxi erabiltzen ditugu garraio publikoak. Beraz: **garraio publikoak ahalik eta gutxien kutsa dezan, udalak garraio elektrikoak erostea. Garraio horren prezioak merketzea, ordutegiak herritar guztiei banatzea, maiztasuna handitzea, geltoki gehiago jartzea eta urdaneta eta elkano auzoetan urbano zerbitzua jartzea.** Konpromisoa: garraio publikoa gehiago erabiltzen saiatzea.

Jatorriz: Orokieta Herri Eskola / Udalbatzarrean aurkezten du: Salbatore Mitxelena Ikastola.

OROKIETA HERRI ESKOLA

- PROPOSAMENA

Erosketak egiterakoan, plastikozko poltsak gehiago erabiltzen dira, nahiz eta haien eragina gurean eta munduan txarra izan: kutsadura sortzen dute, zabor gehiago sortzen da, itsasoko animalientzat arriskutsuak dira... Beraz: **oihalezko poltsak eta karroa erabiltzeko kanpainak antolatzea eta herritarren artean oihalezko poltsak banatzea. Bide batez, plastikoko poltsak garestiago kobratuz edota merkatutik kenduz.** Konpromisoa: karroa edo oihalezko poltsak erabiltzeko saiakera serioa egitea, plastikozko poltsak baztertuz.

Jatorriz: Orokieta Herri Eskola / Udalbatzarrean aurkezten du: Orokieta Herri Eskola

ANTONIANO IKASTETXEA

- PROPOSAMENA

Herriko dendetan ez da nahi bezain beste erosten. Merkatal zentroetan erostea erosoagoa dela diote (produktu aukera handiagoa da, ordutegia zabalagoa da, merkeagoa da), nahiz eta bere alde txarrak ere ikusten dituzten: herritarrentzat lanpostu gutxiago, produktuaren freskotasuna galdu, herritarren arteko harremanak sendotzea zailago, herriak giroa galdu... Beraz: **herriko dendetan gehiago eros dadin kanpainak egitea eta erosotasuna eskeintzea. Erosle hauek saritzea udalak edota herriak antolatzen dituen kultur-ekintzetara gonbidatuz (zina, antzerkera, kontzertuetara), aisia-ekintzera gonbidatuz (igeriketa saioak, zunba saioak...)...** konpromisoa: kanpainak egiten direnean informazioa etxekoekin hitz egitea eta proposatutakoa jarraitzen saiatzea, eta herriko dendetan gehiago erosten saiatzea.

Jatorriz: Orokieta Herri Eskola / Udalbatzarrean aurkezten du: Antoniano Ikastetxea.

Proposamenak aukeratu eta ikastetxeen artean banatu ondoren, udalbatzarrean aurkeztuko den txantiloia banatu da, ikasle ordezkariak osatu ahal izateko. Modu berean, formatu digitalean banatuko da proposamena eta konpromisoa zehaztu eta irudi edo grafikoekin osatzeko.



Udalbatzarren egunean ikasleen proposamenak eta konpromisoak aurkeztearekin batera, ikasturtean zehar egindako lana islatzen duen bideoa erakutsiko da. Bideo honetan ikasleen iritzia txertatzeko helburuarekin, honako galderak luzatu dira:

- Zein izan da gehien gustatu zaizun ekintza?
- Zein da zure iritzia gaiaren inguruan?
- Zer hobetuko zenuke datorren ikasturtean?

Ikasleei postit-ak luzatu zaizkie eta jarraian, bertan idatzitakoa jasotzen da:

- **Zein izan da gehien gustatu zaizun ekintza?**

Oso ondo pasa nuen herrian jendeari galderak egiten eta ikusiz nola dagoen garraio publikoa Zarautzen. Hurrengo urterako nahiko nuke garraioaren progresua hobetu edo txartu egin den ikustea.

Oso ondo pasa nuen herrian inkesta egiten.

Nire gustukoena izan da hiru pertsona ezberdinei galdeketa bat egitea.

Hemen izandako esperientzia oso dibertigarria izan da. Oso ondo moldatu naiz eta lagun asko egin ditut. Hurrengo batean espero dut etortzea.

Gustatu zait bilera hau, oso esperientzia polita iruditu zait Zarauzko gauzak hobetzeko eta hobeto bizitzeko. Ere gustatu zait kaletik jendeari galdetzea asko erabiltzen duten kotxea eta horrelako gauzak.

Askok gustatu zait hona etortzea eta bozkatzeta.

Askok gustatu zait beste eskoletako jendea ezagutzea eta haiekin adostea.

Klima aldaketaren gaia asko gustatu zait eta egin dudana ere.

Proposamenak entzutea nik ere ideiak martxan jartzeko.

Fitxa eta gero grafiko bat egin genuen eta oso gustura egon ginen.

Grafikoa egin genuenean ondo pasa nuen.

Nahiko polita izan da.

Asko gustatu zait polikiroldegira etortzea ekitatea eta klima aldaketari buruz hitz egitera etortzea. Kiroldegian horrez gain lagunak egin ditut.

Gustura egon naiz beste eskolekin hitz egiten eta zer egin herria hobetzeko erabakitzen.

Beste eskoletako lagunak egitea niretzat oso atsegina izan da.

Gustura etorri naiz. Ekintza interesgarria izan da.

Beste eskoletako lagunak egitea gustatu zait.

Fitxa batean ura non dagoen ikasi genuen.

Gelan ikusitako bideoak oso interesgarriak izan dira, asko ikasi eta iritzi asko jaso dira.

Fitxa batean ekitatea eta klima aldaketari buruz hitz egin genuen eta asko gustatu zitzaidan.

Irteera batean urtegi batera joan ginen. Han gauza asko ikasi genituen klima aldaketatik.

- **Zein da zure iritzia gaiaren inguruan?**

Gaia nahiko erabilgarria izan da, nire iritziz.

Ona. Agenda 21aren bidez Zarautzen egoera ikusi dugu. Kutsadura garraio gehiegi daudela etab. Ere bideoen bidez asko ikasi dugu eta zertan hobetu beharko genukeen ikusi dugu.

Aurtengo gaia asko gustatu zait: ekitatea eta klima aldaketa. Oso polita izan da.

- **Zer hobetuko zenuke datorren ikasturtean?**

Agenda 21ari esker ikusten ari gara Zarautz hobeto eta polito gelditzen ari dela. Baina pixkat aspergarria da.

Galderak egiteak lotsa ematen zidan (pixkat).

Galderak egiten lotsa pasa nuen baina azkenean dibertigarria izan da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek buruturiko lana:

Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 20 ordezkari izan dira bileran: Salvatore Mitxelena Ikastolako 2, Antoniano Ikastetxeko 2, La Salle Ikastetxeko 6, Lizardi Institutuko 6 eta Oteitza Lizeoko 4. Lan-dinamikaren helburuen artean ikastetxe ezberdinetako ikasleak elkarlanean aritzea dagoenez, bost talde sortu dira.

Ikasle bakoitzari Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasle guztiek sorturiko proposamen zerrenda luzatu zaio, bakarkako lanean lehentasunak finkatzea eskatuz (5 proposamenen aukeraketa). Ondoren, talde bakoitzari kolore ezberdinetako 6 gometx banatu zaizkio (gorria, 3 bozka; horia, 2 bozka; berdea, bozka 1). Paretean proposamen zerrendak itsatsi egin dira, eta taldekako adostasuna lortu ondoren, aukeraturako proposamen bakoitzaren ondoan gometxa itsatsi dute. Araziko ordezkariak bozka batu eta aukeraturiko 5 proposamenak zozketaren bitartez banatu dira. Horrela, proposamen aukeratuak eta ikastetxeen arteko banaketa honakoa izan da:

SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

- Zarauzko herrian hainbat lekuetan: Inurritzan eta Nafarroa kalean kaleko argiak aldatu dituztela badakigu. Betiko argi inkandezenteen ordezkariak jarriko zituzten. Dena den, gure ustez badago oraindik zer eginik. Beraz: **Helburua argindarraren kontsumoa jaitea eta argitasuna lortzeko energi iturri berriztagarriak erabiltzea:**
 - Eguzki argiz dabilen farolak jartzea.
 - Farola inteligenteak jarri, oinezkoen pausoekin (energia zinetikoarekin) kargatzen diren farolak ipini. Las Vegasen dagoeneko martxan daude.
<http://www.navarrainformacion.es/2016/11/17/la-farolas-inteligentes-convierten-los-pasos-energia/>

Konpromisoa: Argia behar denean eduki piztuta. Piztu eta itzalita gehiago kontsumitzen omen du.

-Behar adina argi piztuta izan batera, gehiegizkorik ez.

-Komunetan eta, argi bakarra piztu, bi argi batera beharrean.

ANTONIANO IKASTETXEA

- **Birziklatzeko zaborrontziak falta diren tokian jartzea, Hondartzan adibidez.**

Oharra: hondartzan ematen den hondakinen kudeaketan oinarritzea adostu da.

LA SALLE IKASTETXEA

- Kalean, parkean gaudenean zaborra sailkatzeko aukera gutxi dago. Beraz: **Zakarrontzi gehiago eta sailkatzeko aukera ematen dutena.** Konpromisoa: Zaborrak ondo sailkatuko ditugu.

LIZARDI INSTITUTUA

- Mugikortasunari dagokionez, zebrabide alboetatik zaborrontziak kendu beharko liriateke, bidea zeharkatzerakoan bisibildade guztia galtzen baita. Beraz: **Zebrabideei itsatsita dauden zaborrontziak pixka bat mugitu eta bertan bizikleten aparkalekua jartzea proposatzen dugu. Horrela, oinezkoek ez baitute arriskurik bidea zeharkatzerakoan.** Konpromisoa: Ikastetxe bezala, gure ikasleei eskolara bizikletaz etortzeak daukan garrantziaz sentsibilizatzea konprometitzen gara. Horrez gain, alboetako herrietatik datozen ikasleei, kotxea partekatzeak daukan garrantziaz sentsibilizatzea konprometitzen gara.

Oharra: Lehen Hezkuntzako ikasleek aukeratu dituzten 2 proposamenekin antzekotasun handiak dituzten 2 proposamen alboratu dira ordezkari guztien adostasunarekin.

OTEITZA LIZEOA

- Herriko kaleetako argiterian, LED bonbila gehiago ezarri beharko lirateke. Beraz: **LED bonbilek garestiak diruditen arren, gero nahikoa merke ateratzen dira, bai gure poltsikorako, eta baita ikuspegi ekologikotik ere. Hori dela eta, herri mailako faroletan LED bonbilak jartzea proposatzen dugu.** Konpromisoa: Dauzkagun fluorestenteak gastatu ahala, LED motakoekin ordezkatzera konprometitzen gara.

Proposamenak eskolen artean banatu ondoren, hauek lantzeko ereduak aurkeztu da, ondoko atalak jasotzen dituenak:

- Ikastetxearen izena.
- Proposamenaren formulazioa eta guk harturiko konpromisoa.
- Proposamenak aberasteko irudiak.

ESKOLEN ARTEKO FOROAN AUKERATURIKO PROPOSAMENA Urola Kosta

PROPOSAMENAREN FORMULAZIOA (ZUEN HITZEKIN ADIERAZI)
...ETA HARTURIKO KONPROMISOA
PROPOSAMENAK ABERASTEKO IRUDIA (MARRAZKIAK, ARGAZKIAK, GRAFIKOAK...)



ESKOLAKO AGENDA 21
2016-2017 IKASTURTEA

Gaia:.....

IKASTETXEA:

Hala, proposamenen aurkezpena garatu ahal izango dute.

Behin fitxak osatuta (digitalean edo eskuz), Arazira (arazi@arazi.eus) maiatzaren 5a aurretik bidali beharko dira.



Azkenik, ikasleei 2016-2017 ikasturteko Eskolako Agenda 21 programan zehar egindako jardueren inguruan galdetu zaie (egindakoa, aipagarriena, ekarpenak...), honako erantzunak jaso direlarik:

2016-2017 ikasturtean egindakoa:

- Emakumeen eguna kalean ospatzera atera.
- Autoek eta fabrikek kutsatzen dutenaren inguruan galdetegia bat bete.
- Patruila berdea zaborren kopurua murrizteko.
- Birziklapenaren inguruko inkesta.
- Bilerak.
- Hondakinak gaika jasotzeko zakarrontzi egokituak jarri dira (argazki eta kolorekin) eta natur taldeak kudeatzen du.
- LH6ko hainbat ikaslek IZADIA taldea sortu dute eta objektu birziklagarriekin edukiontzien modukoak egin dituzte.
- Inkesta bat bete eta ondorioetatik proposamenak atera.
- Arbelean idazteko boligrafoak agortzen direnean, bota beharrean, berriz bete ditzakezun boligrafoak erabiltzen dira.
- Garbitasuna.
- Gaiarekiko kontzientziazioa.
- Led argien garrantzia handitu.
- Komuneko iturrietan bridak jarri ura aurrezteko.
- Hondakinak sailkatzeko edukiontzia jarri eta konposta egiteko prozesuan parte hartu (kartelak jarriaz eta gelaz gela informatuz).
- Helburuak lortzeko pauso txikiak eman.
- Paper organikoak erabili.

Ekarpena etorkizunean kontutan izateko:

- Birziklapenaren inguruko jolasak.
- Birziklapena bultzatzeko sentsibilizazio kanpaina kartel eta edukiontzien bidez.
- Berekoiak gara eta isunak (edo antzekoak) beharko lirateke besteengan (eta naturarengan) pentsatzeko.
- Herriko jendea animatzea A21aren bitartez herria zaintzeko.
- Kutsatzen ez duten pertsonentzako materiala banatu (oihalezko poltsak, tuperrak...).
- Ekojaialdia antolatu: jaialdi txiki polit bat jendea animatzeko (musika eta dantzarekin).



ERANSKINA:

Jasotako ondorio, proposamen eta konpromisoen zerrenda gordina:

LEHEN HEZKUNTZA

A) BIZIKLETAK ETA OINEZKOAK

1. JAKIN BADA KIGU ZARAUZKO HERRIAK BIZIKLETAREN ALDE APOSTUA EGINA DUELA BAINO GURE USTEZ HERRIETAR GEHIAGOK , ADIN GUZTIETAKOAK, BIZIKLETA ERABILIKO LUKETELA ERREPIDEETAN ETA BIDEGORRITAN SEGURU SENTITUKO BALIRA. ORAINDIK ERE BADAUDE HAINBAT LEKU BIDEGORRIRIK GABE, MUNOA ETA AZPEITIKO BIDEA, MOLLARAINO DOAN BIDEA...BERAZ: **BIDEGORRI UGARI DAUDE, ASKO ETA ASKO EKIALDETIK MENDEBALDERA DOAZ . ADIBIDEZ IKASTOLA PARETIK HERRIARINO ETA LA SALLERAINO BIDEGORRITIK JOAN DAITEKE. BAINA IKASTOLATIK HONDARTZA ALDERA DOAN BIDEGORRIA GUZTIZ BORRATUTA DAGO ETA HORI HOBETO MARKATZEA NAHI GENUKE , NAHIZ ETA OINEZKOEN ETA BIZIKLETEN ESPAZIO BAT DELA ULERTU. ESKOLETARA BIZIKLETAZ JOATEAZ GAIN, GUK NAHI GENUKE ZARAUTZEN BIZIKLETAREN ERABILERA GEHIAGO ZABALTZEA, JENDEA EROSKETAK EGITERA HERRIKO MERKATU PLAZARAINO BIZIKLETAZ JOATEA, ETA HORRETARAKO BIDEGORRIAK KONEKTATU EGIN BEHARKO LIRATEKE ETA BIZIKLETA APARKALEKU GEHIAGO JARRI BEHARKO LIRATEKE. BIDEGORRIAK ONDO MARKATU ETA SEINALIZATU. KONPROMISOA: ESKOLETAN BIZIKLETAREN ERABILPENARI BURUZ HAINBAT URTEETAN UDALTZAINEK IRAKATSI DIGUTENA ETA ETXETAN IKASI DUGUNA KONTUTAN IZAN ETA BETE.**
2. ETXE ASKOTAN KOTXE BAT BAINO GEHIAGO DAGO ETA ASKOTAN EDOZEIN EROSKETA EDO HERRI GUNERA JOATEKO KOTXEA ERABILTZEN DUGU. BERAZ: **BIDEGORRI SAREA AREAGOTU, IKASTETXE, KIROLDEGI, HONDARTZA, MERKATUA.... DENAK LOTZEN DITUEN BIDEGORRI SAREA OSATUZ.** KONPROMISOA: BIZIKLETAZ EDO OINEZ MUGITUKO GARA HERRIAN ZE HAR.
3. **HERRI GUNEA OINEZKOENTZAKO BILAKATU. SAN FRANTZISKO KALEA, SANTA MARINA....**
4. LANERA JOATEKO, DISTANTZIA LABURRETAN, BIZIKLETA ERABILTZEN DA; DISTANTZIA LUZEA DENEAN, BERRIZ, KOTXEA ERABILTZEN DA. EROSKETAK EGITERA JOATEKO, GEHIENEK KOTXEA ERABILTZEN DUTE. BERAZ: **OINEZKOEN KALE GEHIAGO JARRI.** KONPROMISOA: DISTANTZIA LABURRETAN BIZIKLETAZ EDO OINEZ JOATEN SAIATZEA. DISTANTZIA LUZEA DENEAN, GARRAIO PUBLIKOA (AUTOBUSA, TRENA) ERABILTZEN SAIATZEA...

B) IBILGAILU MOTORDUNAK

1. IBILGAILU PARTIKULARREN ERABILERA GEHIEGIZKOA DA ETA HORREN ONDORIOZ, ZARAUZTARREK GEHIEGI KUTSATZEN DUGU. BERAZ: **ERREGAI FOSILIK ERABILTZEN EZ DUTEN IBILGAILUEN EROSKETA BULTZATU. GASOLINDEGI ELEKTRIKOAK GEHIAGOTU.**
2. ZARAUZTARREK GUTXI ERABILTZEN DITUGU GARRAIO PUBLIKOAK. BERAZ: **GARRAIO PUBLIKOAK AHALIK ETA GUTXIEN KUTSA DEZAN, UDALAK GARRAIO ELEKTRIKOAK EROSTEA. GARRAIO HORREN PREZIOAK MERKETZEA, ORDUTEGIAK HERRITAR GUZTIEI BANATZEA, MAIZTASUNA HANDITZEA, GELTOKI GEHIAGO JARTZEA ETA URDANETA ETA ELKANO AUZOETAN URBANO ZERBITZUA JARTZEA.** KONPROMISOA: GARRAIO PUBLIKOA GEHIAGO ERABILTZEN SAIATZEA.
3. KOTXEA ASKO ERABILTZEN DA. BERAZ: **KOTXEAREN ERABILERA MURRIZTU.** KONPROMISOA: IBILALDI LABURRETAN OINEZ EDO BIZIKLETAZ MUGITU.
4. ZARAUTZEN IBILGAILU GEHIEGI DAGO. BERAZ: **INFORMAZIO KANPAINAK EGIN, IBILGAILU KOPURUA MURRIZTEKO HELBURUAREKIN, IBILGAILU PARTIKULARREN ERABILERA MURRIZTE ALDERA. KANPAINA HORIETAN BIZIKLETAREN ERABILERA BULTZATZEKO, KOTXEA BETERIK ERABILTZEKO... HONEKIN LOTUTA, IBILGAILURIK ERABILTZEN EZ DUEN BIZTANLEA SARITZEA: ZERGAK JAITSIZ... KONPROMISOA: KANPAINAK EGITEN DIRENEAN INFORMAZIOA ETXEKO EKIN HITZ EGITEA ETA AHOLKUAK JARRAITZEN SAIATZEA.**

1. ZARAUTZEN MOTORDUN GARRAIOAK ERABILTZEN DIRA, BAINA ALDI BEREAN BIZIKLETAREN ERABILERA OSO ZABALDUA DAGO. BERAZ: **HERRI BARRUTIK KOTXEA ERABILI BEHARREAN OINEZ ETA BIZIKLETAZ IBILI.** KONPROMISOA: ESKOLARA OINEZ EDO BIZIKLETAZ JOAN. ASTEBURUKO PARTIDUAK, INGELESEKO AKADEMIARA,..... OINEZ JOAN.
2. ENERGIA GEHIEGI ERABILTZEN DA OROKORREAN. BERAZ: **GARRAIO PUBLIKOA (AUTOBUSA ETA TRENA) GEHIAGO ERABILI.**

C) HONDAKINAK

1. UDAN BATEZ ERE JENDE ASKO ETORTZEN DENEZ TABERNA INGURUKO KONTENEDOREAK GAINEZKA EGOTEN DIRA. AZARA KALEAN “ NAUTICO “ PAREAN KONTENEDOREAK GAINEZKA EGOTEN DIRA ARRATSALDEAN GOIZO. HERRIARI OSO ITXURA KAXKARRA EMANEZ ETA KASU ASKOTAN ZABORRA EZ DA ZUZEN ATERA, ALDE BATETIK GOIZEGI ATERA DUTE ETA BESTETIK GAIKA SAILKATU GABE. ASKOTAN ERREFUSAREN ONTZIAN KARTOIA ETA ONTZI ARINAK IKUSI IZAN DITUGU. BERAZ: **BADAKIGU UDAN ZABOR BILTZAILEEK ZABORRA GEHIAGOTAN JASOTZEN DUTELA BAINA HAINBAT LEKUETAN EZ DA AGIAN NAHIKOA. HORRELAKO EKINTZAK SALATU ETA JARRAIPENA EGIN BEHARKO LITZAIKE. JARRAIPENA EGIN, NONDIK ATERA DEN HAINBESTE ZABOR, BANDOAREN BIDEZ INGURUKO ETXE ETA TABERNA GUZTIETAN ABISUA PASA. ZABORRA SAILKATUZ ETA ORDU EGOKIAN ATERATZEKO ETA BETETZEN EZ BADUTE ISUNA JARRI, KOTXEEI OTA JARTZEN EZ DUTENEAN JARTZEN ZAIEN BEZALA. JOKAERA HAU HERRI GUZTIRA ZABAL ZITEKEEN BAINA NONBAITETIK HASI GINTEZKE.** KONPROMISOA: ETXEAN ETA KALEAN ZABORRA SAILKATUZ BOTATZEA ETA ORDU EGOKIAN ATERATZEKO KONPROMEZUA HARTZEN DUGU.
2. PLASTIKOZKO POLTSAK ERABILTZEA OSO KALTEGARRIA DA, MUNDU ZABALEAN HONDAMENDI HANDIA SORTZEN ARI DIRA. BERAZ: **PLASTIKOZKO POLTSAK PAPERETIK POLTSENGATIK ORDEZKATU.** KONPROMISOA: BIRZIKLATUTAKO POLTSAK ERABILTZEA.PLASTIKOZKO POLTSAK ERABILI EZKERO HAUEK BERRERABILI.
3. EROSKETAK EGITERAKOAN, PLASTIKOZKO POLTSAK GEHIAGO ERABILTZEN DIRA, NAHIZ ETA HAIEN ERAGINA GUREAN ETA MUNDUAN TXARRA IZAN: KUTSADURA SORTZEN DUTE, ZABOR GEHIAGO SORTZEN DA, ITSASOKO ANIMALIENTZAT ARRISKUTSUAK DIRA... BERAZ: **OIHALEZKO POLTSAK ETA KARROA ERABILTZEKO KANPAINAK ANTOLATZEA ETA HERRITARREN ARTEAN OIHALEZKO POLTSAK BANATZEA. BIDE BATEZ, PLASTIKOKO POLTSAK GARESTIAGO KOBRATUZ EDOTA MERKATUTIK KENDUZ.** KONPROMISOA: KARROA EDO OIHALEZKO POLTSAK ERABILTZEKO SAIKERA SERIOA EGITEA, PLASTIKOZKO POLTSAK BAZTERTUZ.

D) EROSKETAK

1. EROSKETAK BERTAN EGINEZ GERO DIRUA HERRIAN GELDITZEN DA, LANPOSTUAK SORTZEN DIRA. BERAZ: **BERTAKO EROSKETA KANPAINEKIN JARRAITU SENTSIBILIZAZIOA HANDITU DADIN. BERTAKO EKOIZLEAK BABESTU, LAGUNDU, SARITU,....** KONPROMISOA: DENDA TXIKIETAN EROSTEA.GURE KONTSUMOAZ JABETZEA.
2. HERRIKO DENDETAN EZ DA NAHI BEZAIN BESTE EROSTEN. MERKATAL ZENTROETAN EROSTEA EROSOAGOA DELA DIOTE (PRODUKTU AUKERA HANDIAGOA DA, ORDUTEGIA ZABALAGOA DA, MERKEAGOA DA), NAHIZ ETA BERE ALDE TXARRAK ERE IKUSTEN DITUZTEN: HERRITARRENTZAT LANPOSTU GUTXIAGO, PRODUKTUAREN FRESKOTASUNA GALDU, HERRITARREN ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEA ZAILAGO, HERRIAK GIROA GALDU... BERAZ: **HERRIKO DENDETAN GEHIAGO EROS DADIN KANPAINAK EGITEA ETA EROSOTASUNA ESKEINTZEA. EROSLE HAUEK SARITZEA UDALAK EDOTA HERRIAK ANTOLATZEN DITUEN KULTUR-EKINTZETARA GONBIDATUZ (ZINERA, ANTZERKIRA, KONTZERTUETARA), AISIA-EKINTZERA GONBIDATUZ (IGERIKETA SAIOAK, ZUNBA SAIOAK...)**... KONPROMISOA: KANPAINAK EGITEN DIRENEAN INFORMAZIOA ETXEKOEKIN HITZ EGITEA ETA PROPOSATUTAKO JARRAITZEN SAIATZEA, ETA HERRIKO DENDETAN GEHIAGO EROSTEN SAIATZEA.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

A) MUGIKORTASUNA

1. Mugikortasunari dagokionez, zebrabide alboetatik zaborrontziak kendu beharko lirateke, bidea zeharkatzerakoan bisibildade guztia galtzen baita. Beraz: **Zebrabideei itsatsita dauden zaborrontziak pixka bat mugitu eta bertan bizikleten aparkalekua jartzea proposatzen dugu. Horrela, oinezkoek ez baitute arrikskurik bidea zeharkatzerakoan.** Konpromisoa: Ikastetxe bezala, gure ikasleei eskolara bizikletaz etortzeak daukan garrantziaz sentsibilizatza konprometitzen gara. Horrez gain, alboetako herrietatik datozen ikasleei, kotxea partekatzeak daukan garrantziaz sentsibilizatza konprometitzen gara.
2. Motordun ibilgailu gehiago daude eta kaleak ez daude egokituta (4diber). Beraz: **Ibilgailu elektriko edo hibridoek inpestuak gutxitu eta udaletxeko ibilgailu berriak eredarri izan daitezela.** Konpromisoa: Herri barruko bidaiak oinez edo bizikletaz burutu eta herriarteko bidaiak aldiz garraio publikoan.
3. Bidegorriak falta dira osatzen jarraitzea. Beraz: **Bidegorri sarea osatzen jarraitzea.** Konpromisoa: Bizikletaren erabilera egokia bultzatuko dugu.
4. Barrualdeko herrietara (Azpeiti, Azkoiti, Aia, Tolosa,...) garraio publiko gutxi daude. Beraz: **Barrualderako herrietara autobusen maiztasuna ugartu.** Konpromisoa: Ahal dugun guztietan kotxea erabili beharrean, garraio publikoa erabiliko dugu.

B) Hondakinak

1. Birziklatze tasa areagotzeko ekintza gehiago burutu behar ditu udalak, koloretako zaborrontziak ezartze hutsarekin ez baita nahikoa. Beraz: **Aparkalekuak zaintzen oteroa dabilzan bezala, zabor ontzi inguruetan zainzaileak jartzea proposatzen dugu.** Konpromisoa: Ikastetxe bezala, bertako ikasle, irakasle, guraso eta langileak gaiarekin sentsibilizatzeko konpromezua hartzen dugu.
2. Zarauzko birziklatze tasa % 43an jarraitzen du, gure ustez oso gutxi da. Beraz: **Bildukin gehien duten produktuak garestiago saldu eta bildukin gehien ekoizten dituzten enpresei isunak jarri.** Konpromisoa: Bildukin gutxien duten produktuak erosi eta poltsak berrerabili, zabor poltsa moduan.
3. Zarauzko birziklatze tasa % 43an jarraitzen du, gure ustez oso gutxi da. Beraz: **Supermerkatuetan fruta poltsa banatan ez pisarazi eta Zarauzko izozki dendetan izozkiak kukurutxoko paperik gabe zerbitzatu, lehen hala saltzen ziren.** Konpromisoa: Okindegian ogiari papera jarri behar dioten bakoitzean, beharrezkoa ez bada, ez jartzeko eskatu. Eta Birziklatu: ikastolan, etxean eta herrian.
4. Zarauzko birziklatze tasa % 43an jarraitzen du, gure ustez oso gutxi da. Beraz: **Udalak birziklatzearen jarraipena egin aleatorioki auzoka eta zaborra sailkatzen duenari zabor tasak jaitsi edo sailkatzen ez duenari isuna jarri (erabiltzekotan, zabor poltsa biodegradagarriak erabili).** Konpromisoa: Papera birziklatzeko, kartoizko kaxa edo plastikozko poltsa bera berrerabili (atera eta hustuta etxera bueltatuz) eta kontsumitzen ari garen uneoro zaborra murrizteko kontzientzia izan.
5. Erosketak egiterakoan bildukin asko dituzten produktuak erosten ditugu. Beraz: **Erosketak hainbeste bildukinek gabe erosteko kanpaina bat egin.** Konpromisoa: Gurasoekin erosketak egitera goazenean, bildukin gabeko produktuak erosi ditzaten egingo dugu.
6. Materia organikoa birziklatzen da konposta egiteko. Beraz: **Auzo bakoitzean konposta egiteko tokia egin.**
7. Kanean, parkean gaudenean zaborra sailkatzeko aukera gutxi dago. Beraz: **Zakarrontzi gehiago eta sailkatzeko aukera ematen dutena.** Konpromisoa: Zaborrak ondo sailkatuko ditugu.
8. **Birziklatzeko zaborrontziak falta diren tokian jartzea, Hondartzan adibidez.**
9. **Kontzientziazio kanpaina fuerte bat egin jendea sentsibilizatzeko. Jendeak oraindik ez dauka**

garbi zein ontzietan bota behar diren gauza bakoitza. Konpromisoa: Hondakinak behar den bezala bereiztu ontzietan.

10. Materia organiko gehiago bereizitu beharko litzateke konposta egiteko. Beraz: **Informazioa zabaldu. Poltsak dohainik jarri, txartelaren sistema ezarri eta bereizketa ondo egiten duenari zabor zergak gutxitu. Derrigortu isunak jarritz.** Konpromisoa: Jangelako hondakinekin Konposta egiten jarraituko dugu. Etxean, gu arduratuko gara konposta bere ontzira eramaten.
11. Erosketak egiterakoan plastikozko bildukin gehiegi erabiltzen dira. Beraz: **Plastikozko poltsak debekatu.** Konpromisoa: Erosketak egiteko etxetik poltsa erabilgarria edo karrotxoak eramaten saiatuko gara.
12. Beste hondakinak (olio, pilak,..) oso gutxi birziklatzen dira. Beraz: **Birziklatze ontzi gehiago jarri, batez ere olio eta pilak jasotzeko. Orokorrean zabor gune berriak sortu.** Konpromisoa: Etxean sortzen ditugun hondakinen bereizketa egokia egingo dugu.

C) Energia

1. Gabonetan herria apaintze aldera gehiegizko argiztapena ezartzen da kaleetan eta biribilguneetan. Beraz: **Argiztapenezko apaingarriak jarri ordez, material birziklagarriekin egindakoak jartzea proposatzen dugu. Herriko merkataritza sustatzeko, hobe da argiztapenetan gastatzen den diru hori kaleak alaitzeko batukada, elektrotxaranga eta antzerako ekintzetara bideratzea.** Konpromisoa: Ikastetxe bezala, material birziklagarriaz egindako apaingarriak egitera konprometitzen gara.
2. Herriko kaleetako argiterian, LED bonbila gehiago ezarri beharko lirateke. Beraz: **LED bonbilek garestiak diruditen arren, gero nahikoa merke ateratzen dira, bai gure poltsikorako, eta baita ikuspegi ekologikotik ere. Hori dela eta, herri mailako faroletan LED bonbilak jartzea proposatzen dugu.** Konpromisoa: Dauzkagun fluorestenteak gastatu ahala, LED motakoekin ordezkatzera konprometitzen gara.
3. Zarauzko herrian hainbat lekuetan: Inurritzan eta Nafarroa kalean kaleko argiak aldatu dituztela badakigu. Betiko argi inkandezenteen ordez ledak jarriko zituzten. Dena den, gure ustez badago oraindik zer eginik. Beraz: **Helburua argindarraren kontsumoa jaitea eta argitasuna lortzeko energi iturri berriztagarriak erabiltzea:**
 - Eguzki argiz dabilzan farolak jartzea.
 - Farola inteligenteak jarri, oinezkoen pausoein (energia zinetikoarekin) kargatzen diren farolak ipini. Las Vegasen dagoeneko martxan daude. <http://www.navarrainformacion.es/2016/11/17/la-farolas-inteligentes-convierten-los-pasos-energia/>

Konpromisoa: Argia behar denean eduki piztuta. Piztu eta itzalita gehiago kontsumitzen omen du.

-Behar adina argi piztuta izan batera, gehiegizkorik ez.

-Komunetan eta, argi bakarra piztu, bi argi batera beharrean.

4. Argiteriak ez du bere helburua betetzen. Beraz: **Led argi gehiago. Orduen arabera argien indarra egokitu.** Konpromisoa: Herriko "mobiliarioa" zainduko dugu.
5. **Orioko Kanpinean egiten duten antzera, malekoian eta Getriako bidean LED argiteria jarri eta erregulatzea, sensoreen bitartez.** Konpromisoa: Ikastetxean argiaren kontsumoa murriztu.
6. Zarautzen, ez dakigu argiteriaren sistema edo funtzionamendua nolakoa den (LED,). Beraz: **Herri mailan, Udalak, argiteriaren inguruko informazioa zabaltzea eta energi berriztagarriak erabiltzen dituzten enpresa hornitzaileak kontratatzea.** Konpromisoa: Ikastetxean eta etxean argiaren kontsumoa murrizten saiatuko gara.

ERANSKINA: Behin aukeraturiko proposamen guztiak aztertuta eta errepikapenak ekiditeko helburuarekin, Udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamenak zehaztu dira. Ikus:

UDALBATZARREAN AURKEZTUKO DEN PROPOSAMEN ZERRENDA

Jarraian, ikastetxe bakoitzari egokitutako proposamena/k zehazten dira:

OROKIETA HERRI ESKOLA

- Erosketak egiterakoan, plastikozko poltsak gehiago erabiltzen dira, nahiz eta haien eragina gurean eta munduan txarra izan: kutsadura sortzen dute, zabor gehiago sortzen da, itsasoko animalientzat arriskutsuak dira... Beraz: **oihalezko poltsak eta karroa erabiltzeko kanpainak antolatzea eta herritarren artean oihalezko poltsak banatzea. Bide batez, plastikoko poltsak garestiago kobratuz edota merkatutik kenduz.** Konpromisoa: karroa edo oihalezko poltsak erabiltzeko saiakera serioa egitea, plastikozko poltsak baztertuz.

SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

LEHEN HEZKUNTZA

- Zarauztarrek gutxi erabiltzen ditugu garraio publikoak. Beraz: **garraio publikoak ahalik eta gutxien kutsa dezan, udalak garraio elektrikoak erostea. Garraio horren prezioak merketzea, ordutegiak herritar guztiei banatzea, maiztasuna handitzea, geltoki gehiago jartzea eta urdaneta eta elkano auzoetan urbano zerbitzua jartzea.** Konpromisoa: garraio publikoa gehiago erabiltzen saiatzea.

BIGARREN HEZKUNTZA

- Zarauzko herrian hainbat lekuetan: Inurritzan eta Nafarroa kalean kaleko argiak aldatu dituztela badakigu. Betiko argi inkandezenteen ordez ledak jarriko zituzten. Dena den, gure ustez badago oraindik zer eginik. Beraz: **Helburua argindarraren kontsumoa jaistea eta argitasuna lortzeko energi iturri berriztagarriak erabiltzea:**
 - Eguzki argiz dabilzan farolak jartzea.
 - Farola inteligenteak jarri, oinezkoen pausoekin (energia zinetikoarekin) kargatzen diren farolak ipini. Las Vegasen dagoeneko martxan daude. <http://www.navarrainformacion.es/2016/11/17/la-farolas-inteligentes-convierten-los-pasos-energia/>

Konpromisoa: Argia behar denean eduki piztuta. Piztu eta itzalita gehiago kontsumitzen omen du.

-Behar adina argi piztuta izan batera, gehiegizkorik ez.

-Komunetan eta, argi bakarra piztu, bi argi batera beharrean.

ANTONIANO IKASTETXEA

LEHEN HEZKUNTZA

- Herriko dendetan ez da nahi bezain beste erosten. Merkatal zentroetan erostea erosoagoa dela diote (produktu aukera handiagoa da, ordutegia zabalagoa da, merkeagoa da), nahiz eta bere alde txarrak ere ikusten dituzten: herritarrentzat lanpostu gutxiago, produktuaren freskotasuna galdu, herritarren arteko harremanak sendotzea zailago, herriak giroa galdu... Beraz: **herriko dendetan gehiago eros dadin kanpainak egitea eta erosotasuna eskeintzea. Erosle hauek saritzea udalak edota herriak antolatzen dituen kultur-ekintzetara gonbidatuz (zinera, antzerkera, kontzertuetara), aisia-ekintzera gonbidatuz (igeriketa saioak, zunba saioak...)...** konpromisoa: kanpainak egiten direnean informazioa etxekoekin hitz egitea eta proposatutakoa jarraitzen saiatzea, eta herriko dendetan gehiago erosten saiatzea.

BIGARREN HEZKUNTZA

- **Birziklatzeko zaborrontziak falta diren tokian jartzea, Hondartzan adibidez.**

Oharra: hondartzan ematen den hondakinen kudeaketan oinarritzea adostu da.

LA SALLE IKASTETXEA

LEHEN HEZKUNTZA

- Etxe askotan kotxe bat baino gehiago dago eta askotan edozein erosketa edo herri gunera joateko kotxea erabiltzen dugu. Beraz: **bidegorri sarea areagotu, ikastetxe, kiroldegi, hondartza, merkata.... Denak lotzen dituen bidegorri sarea osatuz.** Konpromisoa: bizikletaz edo oinez mugituko gara herrian zehar.

BIGARREN HEZKUNTZA

- Kanean, parkean gaudenean zaborra sailkatzeko aukera gutxi dago. Beraz: **Zakarrontzi gehiago eta sailkatzeko aukera ematen dutena.** Konpromisoa: Zaborrak ondo sailkatuko ditugu.

LIZARDI INSTITUTUA

- Mugikortasunari dagokionez, zebrabide alboetatik zaborrontziak kendu beharko lirateke, bidea zeharkatzerakoan bisibildade gutzia galtzen baita. Beraz: **Zebrabideei itsatsita dauden zaborrontziak pixka bat mugitu eta bertan bizikleten aparkalekua jartzea proposatzen dugu. Horrela, oinezkoek ez baitute arriskurik bidea zeharkatzerakoan.** Konpromisoa: Ikastetxe bezala, gure ikasleei eskolara bizikletaz etortzeak daukan garrantziaz sentsibilizatzea konprometitzen gara. Horrez gain, alboetako herrietatik datozen ikasleei, kotxea partekatzeak daukan garrantziaz sentsibilizatzea konprometitzen gara.

OTEITZA LIZEOA

- Herriko kaleetako argiterian, LED bonbilla gehiago ezarri beharko lirateke. Beraz: **LED bonbillek garestiak diruditen arren, gero nahikoa merke ateratzen dira, bai gure poltsikorako, eta baita ikuspegi ekologikotik ere. Hori dela eta, herri mailako faroletan LED bonbillak jartzea proposatzen dugu.** Konpromisoa: Dauzkagun fluoreszenteak gastatu ahala, LED motakoekin ordezkatzera konprometitzen gara.